

Funtsezko lezioei buruzko informazio-laburpena

Informazioa beharizanetara egokitu

BID-REX bigarren tailerreko ondorio nagusiak

2017ko ekainaren 14 eta 15a
Bilbo (Euskal Autonomia
Erkidegoa)

BID-REXen asmoa da naturaren balioa hobe kontserbatzea, eskualde-garapeneko politika hobeei esker, biodibertsitateari buruzko datu adierazgarrien eta kontserbazioari buruz erabakitzekeo prozesuen arteko lotura sortuz/sendotuz. Zehazkiago, bere asmoa da biodibertsitateari buruzko informazioa errazago erabiltzea eta Europako natura-ondarea kontserbatzeko FEDERen diru-esleipenaren eragina areagotzea.

Bigarren tailer honek aztertu zuen biodibertsitateari buruzko informazioak lagundu egin dezakeela erabakiak hartzen dituzten arduradunek identifikatutako beharriak asetzen, kontuan hartu gabe sortutako informazioak une honetan beharriak horiek asetzen dituen edo ez.

Interes-talde garrantzitsuetako ordezkariak esperientziak eta iritziak elkartrukatu zituzten ingurumenari buruzko informazioa sortzeko moduz eta askotariko testuinguruak biodibertsitateaz, hasi herritarren zientzia-elkarteetatik eta ikerketa-guneetaraino. Informazioa bildu, kontserbatu eta balioztatzekeo formak aztertu ziren, eta arrakasta-esperientziak egituratu, beste eskualde batzuetan aplikazio berrietarako oinarri izan daitezkeen.

Erabiltzeko informazio egokia

Erabakiak hartzeko prozesuaren alde garrantzitsu bat erabiltzeko informazioaren kalitatea ebaluatzeko modua da. Horrek eskatuko luke irizpide eta adierazle batzuk definitzea, erabakiak hartzeko prozesuak informazio partzial edo erratuan oinarritu ez daitezkeen. Eskualde-eskalen sare bat tresna baliagarria izan daiteke hura oinarri hartuta eskualdeetako

governuek erabaki prozesuetan erabiltzeko. Sare publiko eta pribatu batek mekanismo sendo bat eskain dezake administrazio publikoentzat indarrak eta baliabideak bateratzeko. Hala ere, sare horien kudeaketa oso bihurria izan daiteke helburu komunik ez badute, edo konfiantza- eta lankidetzeta-harremanak ezartzen ez badituzte. Ezin bestekoa da balioak, estrategia eta gauzapean-plan bat partekatzea eskualde eskala duen sare bat kudeatzeko.

Teknologiak funtsezko lana egiten du informazioa eskuratzea bermatu eta errazteko orduan, informazioa efizienteago eskuratu, interpretatu, aztertu eta baliatu daitekeelako.

Puntu nagusi batzuk informazioa erabilerarako egokia eta erabiltzaileen beharrianetarako adierazgarria izan dadin.



Erabakiak hartzeko prozesuan, informazioa kudeatzeko era hura lortzea bezain garrantzizkoa da.



1. jardunbide egokia: Kataluniako habitaten kartografia

Kataluniako habitaten mapaketa, eskala desberdinetan, tresna baliagarria da natura kontserbatzeari lotutako erabakiak hartzeko orduan. Adibidez, mapaketak balio du lurralde batean dauden askotariko habitaten banaketaren eta betetzen duten ingurunearen berri emateko, lurraldearen kudeaketa hobetzeko, habitatak eta horien kontserbazio-egoera ikuskatzeko txostenak sortzeko, eta denboraren poderioz habitatek izandako bilakaera ebaluatzen.

<http://www.ub.edu/geoveg/en/semhaveg.php>

Araudi, politika eta dokumentu estrategikoei buruzko betebeharrak konplitzeko informazio-beharrizanak

	Zein da arazoa?	Zein izan daiteke konponbidea?
01 <i>'Ikertzaileen' eta 'eskualdeko gobernuen' arteko harremanak biodibertsitatearen aldeko bilakaera izan behar du</i>	<ul style="list-style-type: none">• Ikertzaileek argitara daitezkeen gaiak landu behar dituzte• Gobernuak erantzunak behar dituzte, baina gai horiek ez dira erakargarriak ikertzaileentzat	<ul style="list-style-type: none">• Ikertzaileen lanaren eragin positiboa erakutsi• Ikertzaileei gai "ez oso atseginetan" lan egiteko konbentzitu, finantzaketa-irizpideen bitartez• Ikerketa akademikoa eta benetako beharrizanak uztartzen dituen aipuen indize osagarri bat erabiltzea sustatu
02 <i>Finantzaketa-erakundeek biodibertsitatearen eragin onuragarriak dituzten proiektuak lehenetsi behar dituzte</i>	<ul style="list-style-type: none">• Errazagoa da habitat eta espezie batzuen gaineko txostenak eta mapaketak egitea beste batzuen baino• Zaila gertatzen da habitat batzuk mapatzea definizioa eta irizpideak argi ez daudenean	<ul style="list-style-type: none">• Eskualdeko gobernuak proiektua hautatzen parte hartu beharko lukete• Finantzaketa eta lankidetzarako arreta arlo lehenetsiak identifikatu
03 <i>Biodibertsitateari buruz lan egiten ez duten erakunde batzuk biodibertsitatearen gaineko datuak lantzen dituzte, erabakitzeko prozesuan baliagarriak izan daitezkeenak</i>	<ul style="list-style-type: none">• Biodibertsitatearen lan egiten ez duten erakunde batzuek hari buruzko datuak dituzte eskueran• Ezin dira datu horiek erraztasunez eskuratu	<ul style="list-style-type: none">• Erakunde horiekin eskualdeek sortutako hitzarmenetara heldu
04 <i>Datuak albat gehien eguneratu behar dira, joerak eta aldaketa adierazgarriak detektatzeko</i>	<ul style="list-style-type: none">• Datuak eguneratzeko aurrekontu mugatuak• Datu horiek ezin bestekoak dira joerak eta aldaketak detektatzeko	<ul style="list-style-type: none">• Lehen mailako adierazleei erreparatu (kostu gutxikoak)• Erreferentziazko adierazleen irismen, tamaina eta biodibertsitatearen gainean lan egin• Interesatuaren eskueran jarri eta erabilerarako prest utzi

2. jardunbide egokia: BioGeoNet

BioGeoNet Belgikako espezieen eta habitaten datu-base taxonomiko eta biogeografikoa da, Natagriwal irabazi asmorik gabeko elkarteak erabiltzen duena, eta Liejako Unibertsitateak kudeatua. BioGeoNeten, nekazaritzako ingurumen-programak ikuskatzeko datuak eta informazioa biltzen dira. Erreminta hori kudeaketa eta datu-elkartruckerako jardunbide egokien eredu bihurtzen da, nekazariei lagundu egiten dielako nekazaritzako ingurumen programak martxan jartzen Gainera, jabeei ere laguntzen die, informazioa ematen baitie Natura 2000 sareko partaide diren haien lursailak ekologiaz berroneratu ahal izateko.

<https://www.biogeonet.ulg.ac.be>

Eusko Jaurlaritzaren
Ingurumeneko
sailburuordearen irekiera-
hitzaldia



Berrikuntza-aukerak: informazioa bildu eta ulertzeko tresna berriak

Ikerketa- eta kudeaketa-ikuspegiak betetzeko kontuan hartu beharreko elementu nagusiak



Baliabideak esleitzeko lehenetsunak eta egutegiak ezarri: dirua (kostua eurotan), pertsonak



Datuak erabiltzeko ahalmenen koordinazioa eta garapena



Komunikazioa, elkarrizketa gorakorra eta iruzkinen zein iritzien bilketa benetako beharrianak ulertzeko



Politiken eta ikerketaren arteko integrazioa eta lotura



Erantzukizun publikoa eta gardentasuna (zuzentaruak, datu-argitalpena)



Datuak eskuratu eta kudeatzeko prozesuak, erabiltzaileek izan ditzaketen beharrianei aurre egiteko: egitura, kalitatea eta datu-fluxua

Datu-bilketarako tresnak baliagarriagoak egiteko puntu nagusiak:

- Benetako gaia zein den gogoan eduki hasieratik kabura
- Dagoeneko existitzen den informazioa bilatu (ez asmatu gurpila bigarren aldiz)
- Zikloa egokitu eta errepikatu egin behar da, informazioa erabiltzeko egokia izan arte
- Hartzaile objektiboari arreta jarri: emaitzak behar bezala egokitu eta ikusizko bihurtu

Azken urteotan datu-iturri berri asko garatu diren arren, ez da horietako batzuen ahalmen guztia baliatzen eta, beraz, informazioa galtzen da

Datuak tratatu eta interpretatzeko tresna baliagarri eta iragarleen osagai nagusiak:

- Jatorrizko galdera behar beste aztertu eta auzitan jarri
- Interpretazioa funtsezkoa da: lengoia egokitu, iruzkinak eta iritzia lortu, elkarrizketa hobetu
- Lortutako emaitzak probatu eta ebaluatu, tresna al bait erabilgarriena izateko pertsonalizatu
- Bildutako datuak eta ematen diren pausoak hautatu eta lehenetsi

3. jardunbide egokia: Ornitho.eus

Ornitho.eus proiektua jardunbide egokiaren eredu bat da, herritarren zientzia-ereduen datuen bilketa eta erregistroari lotuta, gerora erabakiak hartzen erabiltzeko. Proiektu honen bidez, hala administrazio publikoek nola boluntarioek abantailak dituzte, adibidez, ikuskapen-programak koordinatuz, kontaktuko sareak sustatuz, adierazleak eta oinarritzko estatistikak garatuz eta erabiliz, alerta-sistema goiztiarrak erraztuz eta tamaina handiko espazio-eskaletan lankidetzan arituz. Ornitho.eus-eko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Naturaren Informazio Sistemara gehitzen da.

<http://ornitho.eus/>

*Eskualde arteko BID-
REX bigarren tailerrera
bertaratuak (Bilbo, Euskal
Autonomia Erkidegoa)*

